

M^a CONCEPCION UGALDE IZETA Bergarako Udaleko Idazkariak

EGIAZTATZEN DU Alkate andreak 2019ko otsailaren 8an ondorengo dekretua eman duela:

“Ikusita Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2019-KALD-000002-00 zenbakiduna,

Ikusita Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusita Ogasuneko Batzorde Informatiboak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena.

Guzti hori ikusita eta arestian aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

ERABAKI DUT

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2019-KALD-000002-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0600.601.133.00.01 2019	SEMINARIXOKO PARKING-A	80.000,00	507.846,85	587.846,85
GUZTIRA		80.000,00	507.846,85	587.846,85

FINANTZAKETA

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a)	2.0101.870.010.00.01	Diruzaintz. Gerak. Garbia – Gastu Orokor	507.846,85
FINANTZAKETA GUZTIRA			507.846,85

Bigarrena. - Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udaltzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.”

Eta horrela jasota gera dadin, luzatzen du egiaztagiri hau, Bergaran, 2019ko otsailaren 8an.

